



**Busturiko
Udala**



Akta

UDALAREN OSOKO BILKURA

SESION PLENARIA MUNICIPAL

TOKIA / LUGAR: Udaletxea
EGUNA / FECHA: 27/11/2013
HASIERA / INICIO: 19:30
AMAIERA/FINAL: 19:45

BERTARATUAK / ASISTENTES:

ALKATEA/ALCALDESA

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda (BILDU)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:

Ziortza Bilbao Agirre (Bildu)
Jone Miren Arrasate Urquiaga (Bildu)
Miren Nekane Renteria Echevarria (Bildu)
Jon Ander Zulueta Andicoechea (Bildu)
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)
Andrés Zearreta Otazua (EAJ-PNV)

IDAZKARI NAGUSIA/ SECRETARIO GENERAL

Víctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiako Udaletxean, aipatu egun eta orduan, Alkatea Mahaiburu eta goian aipatu zinegotziak bertaratuta, Udalaren Osoko Bilkura bildu zen ohiko bilkura lehen deialdian burutzeko. Saioan ebatzitakoaren fede Udaleko Idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarezek eman zuen. Alkate Andreak aginduta hasiera eman zitzaion bilerari zinegotziei nahikoa denborarekin banaturiko gai-zerrendaren arabera, honako akordioetara iritsita:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia de la Sra. alcaldesa, y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió el Ayuntamiento Pleno, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez. De orden de la Sra. alcaldesa dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- AURREKO SAIOKO AKTA.-

Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen 2013ko urriaren 30eko akta.

1.º.- ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.-

El Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 30 de octubre de 2013.

2.- ALKATETZA DEKRETUAK.-

Osoko Bilkurari 2013ko 11. Alkatetza Dekretuaren edukiaren berri eman zitzaion.

2.º.- DECRETOS DE LA ALCALDÍA.-

El Ayuntamiento Pleno fue informado del contenido del Decreto de la Alcaldía n.º 11 de 2013.

3.- BEREZI ECHEBARRIA RIVAS ZINEGOTZIAREN KARGU UZTEA.-

Udalaren Osoko Bilkurari Berezi Echebarria Rivas andreak kargua uzteko aurkezturiko idazkiaren berri eman zitzaion; idazki horretan adierazten du arrazoi pertsonalek eraman dutela 2011ko maiatzaren 22an egindako toki hauteskundearen ondoren 2011ko ekainaren 11n hartutako kargua boluntarioki uztera.

3.º.- RENUNCIA DE LA CONCEJAL BEREZI ECHEBARRIA RIVAS.-

El Ayuntamiento Pleno fue informado del escrito de renuncia al cargo de concejal suscrito por Dña. Berezi Echebarria Rivas, en virtud del cual pone de manifiesto que razones personales le han llevado a formalizar la renuncia voluntaria al cargo del que tomó posesión el día 11 de junio de 2011, tras las elecciones locales celebradas el día 22 de mayo de 2011.

Era berean, jakinarazi zen Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (BILDU) taldearen zerrendako ordezkioak agortu direla, bertako kideak uko egitearen ondorioz.

Asimismo se informa de que la lista de Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (BILDU), ha agotado todos sus componentes al haber renunciado los siguientes miembros de la misma.

Hori ikusita eta Toki Erakundearen Antolakuntza, Jarduera eta Araubide Juridikoa onartzen duen azaroaren 26ko 2568/1986 Errege-dekretuaren 9.4 artikuluan, Hauteskunde-araubide Orokorra arautzen duen ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 182. artikuluan eta 2003ko uztailaren 10eko Hauteskunde -batzorde Zentralaren instrukzioan ezarritakoaren arabera, Osoko Bilkurak, aho batez, honako erabaki zuen:

A la vista de ello y en cumplimiento de lo establecido en los artículos 9.4 del Real Decreto 2568/1986, de 26 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, el artículo 182 de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General, y la instrucción de la Junta Electoral Central de 10 de julio de 2003, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, acordó:

LEHENIK.- Berezi Echebarria Rivas andreak Udaleko zinegotzi kargua uzteko aurkezturiko idazkiaz jabetzea.

PRIMERO.- Tomar conocimiento de la renuncia al cargo de concejal del Ayuntamiento presentada por Dña. Berezi Echebarria Rivas.

BIGARRENIK.- Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (BILDU) taldearen ordezkariari eskatzea hautagarritasun ezinezko kausaren batean ez dagoen herritar adin nagusi baten izendapena proposatzeko

SEGUNDO.- Requerir al representante de la candidatura Bildu-Eusko Alkartasuna (EA)/Alternatiba Eraikitzen (BILDU), para que proponga la designación como concejal de un ciudadano



zinegotzi kargua bete dezan.

mayor de edad que no esté incurso en causa de inelegibilidad.

4.- EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNARI BURUZKO BILDUREN MOZIOA.-

4.º.- MOCIÓN DE BILDU SOBRE DÍA INTERNACIONAL DEL EUSKERA.-

Osoko Bilkurak, 5 aldeko botorekin eta 3 abstentziorekin, Euskarako Nazioarteko Egunaren gaineko mozioa onartu zuen.

El Ayuntamiento Pleno, por 5 votos a favor y 3 abstenciones, aprobó la Moción de Bildu sobre el Día Internacional del Euskera:

“Euskararen Nazioarteko Eguna ospatzeko eta aldarrikatzeko eguna da. Ospatzeko euskararen gizarte erakundeek, euskaltzaleek eta erakunde publikoek lan eskergea egin dugulako euskararen normalizazioan azken hamarkadetan eta hizkuntza asko ez bezala bizirik iritsi delako gaur egunera.

“Es un día para celebrar y reivindicar el Día Internacional del Euskera. Para celebrar que organizaciones sociales, amantes del euskera, e instituciones públicas hemos realizado un trabajo enorme para normalizar el euskera en las últimas décadas, y al contrario que muchos otros idiomas, ha llegado vivo hasta el día de hoy.

Baina ospakizunak neurritz egin behar dira, izan ere, jakitun gara, euskara bizirik egon arren, osasunetik urrun dagoela. UNESCOk berak hizkuntza ahulen zerrendan jarri du euskara eta euskara normalizaziotik urrun dago oraindik.

Pero las celebraciones se deben hacer cautelosamente, ya que, somos conocedores de que aunque el euskera siga vivo, su salud no es la mejor. La UNESCO misma ha puesto el euskera en la lista de idiomas débiles y todavía está lejos de la normalización.

Beraz, euskararen normalizazioa aldarrikatzeko eguna da batez ere, hau da, euskal herritar guztiontzat eguneroko arlo denetan euskara ohiko eta lehentasunezko hizkuntza izan dadila aldarrikatzea.

Por lo tanto, es un día para reivindicar la normalización del euskera, es decir, para reivindicar que el euskera sea el idioma habitual y prioritario en el día a día de los ciudadanos vascos.

Udalak erantzukizun zuzena du eta ezin du hizkuntz politikaren ardura hori bere kudeaketa politikotik kanpo utzi. Eta eragin behar du Udalaren tresna nagusiak – euskararen udal ordenantza, udal barruko zein udalerriko planak eta neurri praktikoak zein aurrekontuak – emankorrek izan daitezen Euskal Herri euskaldunaren bidea bultzatzeko.

El Ayuntamiento tiene una responsabilidad directa, y no puede dejar las políticas lingüísticas fuera de su gestión política.

Euskara normalizatuko bada hizkuntza politika berria eta herritarren aktibazioa behar ditu ezinbestean.

Tienen que ser impulsadas por las herramientas principales del Ayuntamiento – la ordenanza municipal del euskera, los planes municipales, tanto los internos como los externos y las medidas prácticas y presupuestos – para que sean productivas para impulsar el camino del País Vasco.

Beharrezkoa da gaurdanik, gure udalerrri honetan, euskara normalizazio bidean jartzeko politika eta erabaki ausartak hartzea eta norabide horretan Udal honek ondorengo konpromisoak hartu eta deialdiak luzatu nahi ditu:

Si el euskera se va a normalizar, es imprescindible una nueva política lingüística y la participación activa de los ciudadanos.

1. Euskaldunen hizkuntza eskubideak bermatuko ditugu, eta euskara administrazio osoan lan eta zerbitzu hizkuntza bihurtzeko konpromisoa hartzen dugu.

Es necesario, desde hoy, que en este municipio se tomen políticas y decisiones atrevidas para normalizar el euskera y, siguiendo en esta dirección, este Ayuntamiento toma los siguientes compromisos y extiende los siguientes llamamientos:

2. Euskararen arnasmuneak -espazio sozial euskaldunak- bultzatu eta indartzeko konpromisoa hartzen dugu.

1º. Garantizaremos los derechos de idioma de los vascos, y tomamos el compromiso de convertir el euskera en un idioma de trabajo y de servicio.

3. Udalaren kontratazio-publiko eta lehiaketa guztietan hizkuntza-irizpideak txertatu eta garatzeko konpromisoa hartzen dugu.

2º. Nos comprometemos a fomentar y fortalecer los espacios sociales vascos.

4. Udal honek hitzun berriak lortu eta euskararen ezagutza udalerrian unibertsalizatzen laguntzeko konpromisoa hartzen dugu.

3º. A introducir y desarrollar la contratación pública en el Ayuntamiento los criterios-lingüísticos en todas las competencias.

4º. Nos comprometemos a conseguir más hablantes y a ayudar a universalizar el euskera en todo el municipio.

5º. Y por último, nos comprometemos a crear y dar forma a



5. Herriko euskararen aldeko bilgune zabalak –euskaigintza, eragileak, sektore desberdinerako erakundeak, udala – sortzen eta gorpuzten laguntzeko konpromisoa hartzen dugu.

Hori guztia dela eta Udalak herritar euskaldunak gonbidatzen ditu euskaraz bizitzeko konpromisoa har dezaten:

1. Dakienak edonon, edonorekin eta edonoiz erabiliz
2. Ez dakienak euskara ikasiz
3. Erdipurdi dakienak euskara erabiliz, hobetuz.

Halaber, udalak herritar euskaldunak gonbidatu egiten ditu udalarekin dituzten harreman guztietan, ahozkoetan zein idatzizkoetan euskaraz jardun daitezen.”

Alaber, aldeko hiru botogatik eta bost abtentiogatik, EAJ-PNVko zinegotzien hurrengo proposamena onartu zuen:

Abenduaren 3a Euskararen Nazioarteko Eguna da. Euskararen balio unibertsala aldarrikatzeko eguna da, eta euskararentzat beste hizkuntzen artean dagokion tokia aldarrikatzeko eguna.

(...) Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntza artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia (...)

(Koldo Mitxelena)

Ospatzeko eguna eta konpromisoak hartzeko eguna da Abenduaren 3a.

- Ospatzeko eguna da, euskararen bilakaera munduan erdutzat hartzen baita. Euskarak, oro har, aurrerakada handia (0.5 puntu urteko) egin du azken hiru hamarkadotan, inoiz izan dituen baino hiztun gehiago ditu, eta gizarte-bizitzako esparru ugarian goraka doa euskararen erabilera, horietako hainbatetan hizkuntza erabat ezezaguna izan den arren. Ospatzekoa ere bada euskararen 30 urteotako aurrerabidean erabakigarria izan den kontsentsu sozial eta politikoa zabala erdietsi izana, adostasun hori bera baita, azken batean, hizkuntza politika integraztaile baten giltzarri nagusia.

- Konpromisoak hartzeko eguna da, oraindik ere asko dutilako egiteko euskara ondoan dituen hizkuntza bien berdintasun sozialera heltzea nahi badugu. Gero eta gizarte elebidunago baten bagaude ere, euskarak bidea egin beharra dauka oraindik, elebitasun orekatura iristeko. Eta horretarako ezinbestekoena, euskararen sustapena ardatz nagusi hartuta hizkuntzen eta hiztunen arteko bizikidetzara eramango gaituzten ekimen eta praktika adostu eta demokratikoak bultzatzea eta gauzatzea da. Kontuan izanik, beti ere, erabilera dela euskararen eta beste edozein hizkuntzaren bizi-indarraren erregai bakarra.

Guk, udal talde honek, Euskararen Nazioarteko Egunean

nuevos puntos de reunión a favor del euskera del pueblo – actividades culturales vascas, asociaciones para diferentes sectores, Ayuntamiento - .

Por todo esto, el Ayuntamiento invita a los ciudadanos vascos a que tomen el compromiso de vivir en euskera:

- 1º. Utilizándolo, el que sabe hablarlo, con cualquiera, en cualquier momento y cualquier lugar.
- 2º. Aprendiéndolo el que no lo sabe hablar.
- 3º. Mejorándolo practicando el que no tiene un nivel muy alto.

Asimismo, el Ayuntamiento anima a los ciudadanos vascos a realizar en euskera todo el trato que tenga con este, tanto oral como escrito.”

Asimismo, por tres votos a favor y cinco abstenciones, aprobó la siguiente propuesta de los concejales de EAJ-PNV:

“El 3 de Diciembre es el Día Internacional del Euskera. El día de reivindicar el valor universal del euskera, así como el espacio que corresponde euskera entre las demás lenguas.

(...) Así como nuestro pueblo necesita encontrar un lugar entre los pueblos así también nuestra lengua tiene que encontrar un lugar entre las lenguas: un lugar suficiente, que asegure su continuidad y desarrollo sin aventuras maximalistas (...)

(Koldo Mitxelena)

El 3 de Diciembre es un día para la celebración y para el compromiso.

• Un día para la celebración, porque la evolución del euskera es considerada modélica en el mundo. El euskera, en términos generales, ha registrado un fuerte avance en estas últimas tres décadas (a razón de 0,5 puntos anuales), y el uso del euskera crece en todos los ámbitos sociales, a pesar de haber sido una lengua completamente ajena a algunos de ellos. También merece ser celebrado el amplio consenso social y político que ha resultado decisivo para el avance del euskera en estos 30 años, un consenso que constituye, en definitiva, la clave primordial de una política lingüística integradora.

• Un día para el compromiso, porque aún nos queda mucho por hacer si pretendemos que el euskera alcance la igualdad social con las dos lenguas con las que vive en contacto permanente. A pesar de que nuestra sociedad es cada vez más bilingüe, al euskera le queda aún camino por recorrer para llegar a una situación de bilingüismo equilibrado. Y para ello es imprescindible, por encima de todo, impulsar y hacer realidad actuaciones y prácticas consensuadas y democráticas que, tomando como eje el fomento del euskera, nos conduzcan a una mejor convivencia entre las lenguas y sus hablantes. Sin perder nunca de vista que el uso es el único combustible capaz de alimentar el motor de la vitalidad de cualquier



gure gogoia adierazi nahi dugu euskarak gure egunerokotasunean gero eta toki gehiago har dezan, eta herritarrak animatu nahi ditugu euskara gero eta gehiago erabiltzeko, ohiko eginkizun eta egoeretako hizkuntza izan dezaten. Dakigunok gero eta gehiago erabil dezagun, eta ez dakitenek euskarara hurbiltzeko urratsak eman ditzaten: horra euskararen geroa eta bizi-indarra bermatzeko ezinbesteko ekinbidea. Gutariko bakoitzaren ardura da.

Hori guztiagatik udal honek konpromisoa hartzen du:

1. Gure herritarrei udal administrazioarekin dituzten harremanetan nahi duten hizkuntza erabiltzeko aukera bermatzeko. Herritarren eskubideak bermatzea eta defendatzea gizarte aurreratu eta demokratikoen ezaugarri nagusietakoa den heinean, gure udalak bermatu eta defendatu beharreko eskubidetzat jotzen baitu hizkuntza eskubidea bera ere.
2. Euskara gero eta gehiago udal honetan lan hizkuntza izateko, udalean euskararen erabilera sustatu eta bermatuz, alkate eta zinegotziek euskararen erabileraren aldeko jarrerak erakutsiz, eta euskaraz jarduteko gai diren herritarrak beren lanean euskararen erabilera areagotuz.
3. Abenduaren 31karako V. Plangintzaldiari dagokion euskara plana egina izateko.
4. Herritarrengan euskararen aldeko atxikimendua sendotzea helburu duten ekintzak bideratzeko, euskararen aldeko jarrerak sustatzeko, eta herritarrak euskararen munduez disfrutatzerantz animatzeko.
5. Euskararen erabilera, bereziki gazteen artean eta eremu ez formaletan sendotzeko ekimenak planifikatu eta gauzatzeko, euskara biziberritu eta sustatzeko plangintza orokorraren baitan.
6. Udal honen baitan eta gure udalerrian, euskararen sustapenerako ekimen eta politikak inguruko adostasun sozial eta politiko zabal eta sakonena bilatzeko". Alkate andreak, talde politikoak ados dauden mozioetan banaka aurkezteko planteatzen duten dinamika apurte behar dela adierazi zuen. Kasu honetan euskara, bere alde indar guztiak batu beharra daukana.

lengua.

Nosotras y nosotros, componentes de este grupo municipal, queremos expresar, en el Día Internacional del Euskera, nuestra voluntad de incorporar cada vez en mayor medida el euskera a nuestra cotidianidad, y animar a la ciudadanía a que utilice cada vez más el euskera, hasta hacer de él lengua habitual de sus tareas y actividades cotidianas. Que quienes sabemos euskera lo utilicemos cada vez más, y que quienes no lo dominan den pasos para acercarse al euskera: ha ahí la práctica imprescindible para garantizar el futuro del euskera. Es responsabilidad de cada uno de nosotras y nosotros.

Por todo ello, este Ayuntamiento se compromete a:

1. Garantizar a nuestra ciudadanía la opción de utilizar la lengua de su elección en las relaciones con la Administración municipal. Porque, en la medida en que la garantía y defensa de los derechos ciudadanos constituye una de las características esenciales de las sociedades democráticas avanzadas, nuestro Ayuntamiento considera incluidos también los derechos lingüísticos entre los derechos que han de ser garantizados y defendidos.
2. Que el euskera sea cada vez más lengua de trabajo, fomentando y garantizando su uso en el Ayuntamiento, haciendo patente una actitud favorable a su uso por parte del alcalde y concejales, e incrementando el uso del euskera en su trabajo por parte de los empleados públicos capaces de utilizarlo.
3. Elaborar el plan de euskera correspondiente al V Período de Planificación antes del 31 de diciembre.
4. Promover acciones que persigan el objetivo de fortalecer la adhesión de la ciudadanía hacia el euskera, fomentar las actitudes favorables al euskera, y animar a la ciudadanía a disfrutar de los diversos mundos del euskera.
5. Planificar y llevar a la práctica actuaciones tendentes a acrecentar el uso del euskera, especialmente entre la juventud y en los ámbitos no formales, en el marco de la planificación general para la revitalización del euskera.
6. Procurar, en el contexto de este Ayuntamiento y municipio, el más amplio y profundo consenso social y político en torno a las iniciativas y políticas de fomento del euskera." La Sra. Alcaldesa manifestó que había que romper la dinámica que están planteando los grupos políticos del Ayuntamiento respecto de presentar mociones propias en asuntos en los que están básicamente de acuerdo, en este caso el euskera, que necesita unir fuerzas en su favor.

5.- EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO EGUNARI BURUZKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALAREN PROPOSAMENA.-

5.º.- PROPUESTA DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DÍA CONTRA LA VIOLENCIA HACIA LAS MUJERES.-



Komisioak, aldeko 5 botorekin eta 3 abstentziorekin hurrengo proposamanta onartzea proposatu zion Osoko bilkurari: Azaroaren 25a "Emakumeen kontrako indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna" dela eta, EHBilduko kideok azpimarratu nahi dugu alor horretan behar-beharrezkoa dela politikari eta herritarren adostasunean eta konpromisoan sakontzea, eta hortik abiatuta, batera bizitzeko guneak sortzea, non emakumeek, azkenean, indarkeria matxistatik aske bizitzeko aukera izango duten. Gure ustez premiazkoa da helburu horrek lehentasunezko eta etengabeko tokia izatea bizitza kolektiboa antolatu eta kudeatzeko ardura duen edozein erakunde publikoren agenda politikoan.

"Hiru gaztek 17 urteko adingabe bat bortxatu dute Egia auzoan", "neska gazte batek sexu-erasoa pairatu du Ibarra jaietan", "polemika San Ferminetan, sexu-erasoen gorakadaren ondorioz", "Laudion gizon batek emaztea erail du", "neska gazte batek sexu-erasoa pairatu du Irurako jaietatik etxera itzultzean" "emakume batek Urumea ibaira bota du bere burua, bikotekidearen heriotza-mehatxuetatik ihes egiteko" "Irunen emakume batek aiztoa sartu dio mutilagunari, haren erasoetatik defendatzeko"...

Indarkeria matxistaren alderik gordinena hori da, jendeak ikusten eta ezagutzen duena. Alabaina, indarkeria matxistak askotariko aurpegi eta adierazpenak dauzka, eta emakume guztiei eragiten die bizitza osoan zehar, gazteei, zaharrei, etorkinei, sexu-langileei, politikariei, bankariei edo superreko kutxazainei. Indarkeria matxista etxeetan nozitzen dute emakumeek, baina baita eremu publikoetan ere, mota eta intentsitate desberdineko hainbat portaera matxista eta bortitzen bitartez.

Ikuspegi horretatik begiratuta, eraso matxistak ez dira gizon gutxi batzuen jokabide soilak, emakumeen eta gizonen elkarrekin bizitza antolatzeko eraikitako eredu baten parte baizik, emakumei denbora kentzean eta emakumeen gorputza, afektuak eta lana gizonen zerbitzuan jartzean oinarritu dena. Eredu horrek berez legitimatzen du egoera hau, emakume eta gizonen arteko desberdintasunei esker, eta neurri handiagoan edo txikiagoan baimentzen du emakumeen aurkako indarkeria.

Aldi berean uste dugu indarkeria ez litzatekeela indarrean egongo indarkeria hori justifikatzen, legitimatzen eta ahalbidetzen duten gizarteratze-bitarteko jakin batzuk indarrean egongo ez balira. Izan ere, bitarteko horiek ahalbidetzen dute indarkeria, kontzienteki edo inkontzienteki, bidezkotzat, beharrezkotzat edo saihestezintzat jotzea. Ildo horretan, erlijioak, hizkerak, komunikabideek, familiak eta hezkuntzak zeresan handia dute indarkeria iraunarazten lagunt-

La Comisión, por 5 votos a favor y 3 abstenciones, propuso al Ayuntamiento Pleno aprobar la siguiente propuesta "Declaración Institucional Día Contra la Violencia Hacia las Mujeres":

Con motivo del 25 de noviembre, "Día Internacional contra la Violencia hacia las Mujeres" desde EHBildu queremos visibilizar la necesidad de profundizar en el acuerdo y compromiso político y ciudadano para poder caminar hacia espacios de vida en común en los que las mujeres puedan, por fin, vivir vidas libres de violencia machista. Entendemos que este objetivo debe estar de manera urgente, prioritaria y permanente en la agenda política de cualquier institución pública responsable de organizar y gestionar la vida colectiva.

"Violación de una menor de 17 años por tres jóvenes en el barrio de Egia", "intento de agresión sexual a una joven en fiestas de Ibarra", "polémica en San Fermín por el aumento de agresiones sexuales", "asesinada en Llodio por su pareja", "agresión sexual a una joven al regresar a casa tras estar en fiestas de Irura" "una mujer se ha lanzado al río Urumea para huir de las amenazas de muerte de su pareja" "una mujer, en Irun, se ha defendido de las agresiones de su compañero sentimental clavándole un cuchillo"...

Esta es la parte más brutal de la violencia machista que se ve y se conoce. Pero nos enfrentamos a una violencia machista con múltiples caras y expresiones que afecta a todas las mujeres a lo largo de toda su vida, sean jóvenes, mayores, migrantes, trabajadoras sexuales, políticas, banqueras o cajeras de supermercado. Una violencia machista que se ejerce en los hogares pero también en los espacios públicos y que se manifiesta a través de distintos comportamientos violentos y machistas de distinto tipo e intensidad.

Desde esta perspectiva, los ataques machistas no se explican por conductas aisladas de algunos individuos, sino que son parte de un modelo de organizar la vida juntos y juntas, construida sobre la base de la expropiación del tiempo, el cuerpo, los afectos y el trabajo de las mujeres al servicio de los hombres. Este modelo, en sí mismo, legitimador y sostenido gracias a la existencia de las desigualdades entre mujeres y hombres va a permitir un clima de mayor o menor permisividad en el ejercicio de la violencia contra las mujeres.

Asimismo, entendemos que la violencia no sería posible sin unos mecanismos de socialización que la justifiquen, la legitiman y la hacen posible, posibilitando que la violencia se interprete consciente o inconscientemente como justa, necesaria o inevitable. De esta manera, la religión, el lenguaje, los medios de comunicación, la familia y la educación se erigen como una parte importante de los mecanismos de socialización que contribuyen a perpetuar la violencia.

Desde esta perspectiva, el trabajo y las estrategias para avan-



zen duen gizarteratzean.

Ikuspegi horretatik, emakumeok indarkeria matxistatik aske bizitzeko bermean aurrera egiteko, gure lana eta gure estrategiak honako hauetan oinarritu behar dira:

- Emakume eta gizonen arteko egiturazko desberdintasunari heltzea, indarkeria matxistaren aurkako borrokarako funtsezko ardatzetako bat den heinean. Egiturazko indarkeria horri aurre egiteko neurri asistentzial, juridiko eta polizialak soilik erabiltzen baditugu, ordea, ez dugu aurrera egingo.

- Indarkeriaren askotariko adierazpen eta toki ugarietara hedatzea gure begirada. Tratu txarrak eta sexu-erasoak indarkeria dira, bai, baina espazio publikoan gertatzen dena ere indarkeria da: intentsitate txikiko indarkeria esaten zaio, eta esaterako, begirada edo komentario iraingarrien bidez adierazten da, edota toki jakin batzuetan eta ordu jakin batzuetan askatasunez ibiltzeko, emakumeek “babesa” —eta ahal dela gizonen “babesa”— eduki behar izatea normalizat jotzen denean. Ildo horretan, indarkeria matxistaren aurkako politikek malguak izan behar dute, testuingurura, indarkeria matxisten aniztasunera eta emakumeen aniztasunera egokitzeko modukoak (dibertsitate funtzionala, etorkinak, gazteak, drogazaleak eta abar).

- Kultura-adierazpen eta -fenomeno diskriminatzaileen aurka borrokatzea, eta halakotzat jotzen ez badira ere, indarkeria matxistari legitimitate soziala ematen dioten fenomeno soziokultural eta sinboliko jakin batzuk indarkeria matxistaren adierazpentzat jotzea.

- Emakumeek eta gizonen nola jardun behar duten arautzen duten arau sozialak urratzen dituzten taldeen aurkako bestelako indarkeria matxistak —hala nola transfobia, lesbofobia edo homofobia— ikusaraztea, prebenitzea eta indarkeria horri erantzutea.

- Indarkeria matxistan duten protagonismoari buruz gogoeta egitera bultzatzea gizonen: zer den eraso eta zer ez den bereizteko zailtasunak dituztenean, erasoetan zuzenean parte hartzen dutenean, eta erasoak gaitzetsi arren, erasoen ikusle pasibo soilak direnean.

Horregatik guztiagatik, udal honek honako konpromiso hauek hartu ditu:

- Berdintasun-politikak garatzeko baliabideak (giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak) urtetik urtera indartzea.

- Parte-hartzean oinarritutako prozesuak abian jartzea edo bultzatzen jarraitzea, jai-giroko erritu sinbolikoetan eta eremu soziokultural guztietan emakumeen parte-hartzea sustatzeko.

- Emakumeen ahalduntzea sustatzeko eremu komunak sortzea eta/edo baliabideekin indartzea: ahalduntzeko eskolak, emakume-etxeak eta haiek sarean antolatzea. Hau da,

zar en la garantía de que las mujeres podamos vivir vidas libres de violencia machista deben guiarse por:

- Abordar la desigualdad estructural entre mujeres y hombres como un eje fundamental de la lucha contra la violencia machista. No avanzaremos en tanto en cuanto abordemos esta violencia estructural desde medidas puramente asistenciales, judiciales y policiales.

- Ampliar la mirada sobre las diversas y múltiples manifestaciones de la violencia, así como sobre los espacios en las que se produce. Son violencia los malos tratos y las agresiones sexuales, pero también es violencia aquella que se da en el espacio público: la denominada violencia de baja intensidad, que se expresa, por ejemplo, a través de miradas o comentarios ofensivos; o cuando se considera como normal que las mujeres tengamos que ir “escortadas” preferiblemente por hombres para poder caminar libremente por algunos lugares a determinadas horas. En este sentido, las políticas contra la violencia machista deben ser flexibles y adaptables al contexto, a la diversidad de las violencias machistas y a la diversidad de las mujeres (diversidad funcional, migrantes, jóvenes, drogodependientes, etc.).

- Luchar contra las expresiones y fenómenos culturales discriminatorios; y nombrar como violencia machista a fenómenos socio-culturales y simbólicos que no son considerados como tales, y sin embargo, son elementos que dotan de legitimidad social el ejercicio de la violencia machista.

- Visibilizar, prevenir y responder de manera urgente a otras formas de violencia machista, como la transfobia, lesbofobia, o la homofobia que sufren los cuerpos que transgreden las normas sociales que rigen cómo deben ser las mujeres y los hombres.

- Impulsar que los hombres reflexionen y se planteen su protagonismo en la violencia machista: sus dificultades para identificar qué es una agresión y qué no, su participación activa en las mismas, así como su papel como mero espectador pasivo de una agresión, pese al rechazo de ésta.

Por todo ello, este Ayuntamiento asume el compromiso de:

- Fortalecer, anualmente, los recursos económicos y humanos destinados al desarrollo de políticas de igualdad.

- Poner en marcha o continuar impulsando procesos participativos que promueven la participación igualitaria de las mujeres en los rituales simbólicos y festivos, así como en los diversos espacios socio-culturales existentes.

- Crear y/o fortalecer con recursos los espacios comunes destinados a promover el empoderamiento de las mujeres, como las escuelas de empoderamiento, casas de las mujeres y su articulación en red. Esto es, a impulsar que las mujeres cuenten con los instrumentos necesarios para que puedan



emakumeei bultzada ematea, banaka zein taldeka, desberdintasunei, kalte-beratasunari eta indarkeria matxistari aurre egiteko behar dituzten tresnak eskura eduki ditzaten.

- Beste udalerrri batzuekin elkarlanean hastea edo parte hartzen jarraitzea sare-programen bitartez abian jarritako eremu kolektiboetan, Gipuzkoa Berdinbidean programan adibidez. Programa horien arabera, udalek dirua jarri behar dute emakumeen aurkako (eta bereziki emakume gazteen aurkako) indarkeria prebenitzeko jardunak garatzeko, gizonetikiko elkarlana bultzatzeko, adierazpen honetan adierazitakoaren ildo beretik, eta ahalduntzeko eskolak abian jartzeko.

- Emakume gazteen aurkako indarkeria matxistari aurrea hartzeko erakunde arteko lan-prozesuak (Beldur barik programa adibidez) baliabide tekniko eta ekonomikoekin sendotzea.

- Lan kolektiboa abian jartzea eta/edo indartzen jarraitzea, indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakumeentzako arreta hobetzeko koordinazio-protokolo lokal edo mancomunatuen esparruan.

- Indarkeria matxistari aurre egiten dioten emakume eta taldeentzako tokiko arreta-zerbitzuak eratzea edo birdefinitzea, indarkeria-adierazpen desberdinei eta indarkeriari aurre egin behar dioten emakumeen premia eta interes desberdinei erantzuteko.

Azkenik, mugimendu feministak egun horretarako antolatutako jarduera eta mobilizazio guztiekin bat egiteko deia egin nahi dugu. Egun horretan kalera irten behar dugu, eta emakume guztiok mota guztietako indarkeria matxistatik aske izan arte borrokan jarraituko dugula oihukatu.

hacer frente, individual y colectivamente, a la desigualdad, la vulnerabilidad y la violencia machista.

-. Comenzar o seguir participando activamente junto con otros municipios en los espacios colectivos puestos en marcha a través de los programas en red y que exigen destinar recursos económicos municipales para el desarrollo de actuaciones que permitan prevenir la violencia contra las mujeres, especialmente, la que enfrentan las mujeres jóvenes e impulsar el trabajo con los hombres, en el sentido señalado en la presente Declaración; y la puesta en marcha de escuelas de empoderamiento.

- Apoyar con recursos técnicos y económicos procesos de trabajo interinstitucionales dirigidos a la prevención de la violencia machista que enfrentan las mujeres jóvenes.

- Poner en marcha y/o continuar fortaleciendo el trabajo colectivo en el marco de los Protocolos de coordinación locales o mancomunados destinados a la mejora de la atención de las mujeres que enfrentan la violencia machista.

- Articular o redefinir servicios de atención locales para mujeres y cuerpos que enfrentan la violencia machista que den respuesta a las diversas manifestaciones de ésta y a las diversas necesidades e intereses de las mujeres que la enfrentan.

Por último, hacemos un llamamiento a sumarse a todas las actividades y movilizaciones organizadas en torno a este día por el movimiento feminista. Un día para salir a la calle y gritar que seguiremos luchando hasta que todas seamos libres. Libres de todo tipo de violencia machista."

El Sr. Zearreta dijo que su grupo se abstenía, dado que en la redacción se estaba citando continuamente al grupo político de Bildu, y que si la propuesta se hubiese redactado de otra manera ellos hubiesen votado a favor.

6.º.- GALDE-ESKEAK.-

Bilbao Andreak, hurrengo igandean, 12,30etan, Aingerubideko lokalean, euskeraren eguna ospatzera gonbidatu zituen.

Eta besterik gabe, alkate andereak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, alkate andereak eta egiaztatzen dudak idazkariak sinatuta.

Alkatea/La alcaldesa,

Miren Fátima Malaxetxebarria Nebreda

6.º.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-

La Sra. Bilbao invitó a los concejales a celebrar el día del euskera el próximo domingo a las 12,30 horas, en el local de Aingerubide.

Y no habiendo más asuntos que tratar, la Sra. alcaldesa dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, la Sra. alcaldesa y el secretario que certifico.

Idazkaria/El Secretario,

Víctor-Martín Amparan Álvarez